

## EUSKALDUNAK.<sup>1</sup>

---

(MR. DUVOISIN KAPITAN, EUSKERAZALE ARGIDOTARRARI.)

---

¡O anai maite, Bidasoatik  
Aronz dezuna kabiya,  
Lapurdiko lur gozatsuetan  
Zerana jayo ta aziya!  
¿Egiya ez da or eta emen  
Bat dala Euskal-erriya?  
¿Alferrik dala berezitzeko  
Gizonaren nai guztiya?

Or eta emen ¿ez da bat bera  
Euskaldun denen Fedea?  
¿Ez da bat denok maitatzen degun  
Maitagarritzko Legea?  
Ez da guztiyen izkuntz gozoa  
Euskeria eztia maitea?  
Or eta emen ¿ez da esaten  
Euskeraz Aita gurea?

Odol bat degu: denok gerade  
Kabi batean sortuak;  
Or eta emen berdiñak dira  
Oitura bedeinkatuak;

Berdiñak dira barren-barrenen  
Digutun sentimendua;  
Berdiñak gure biyotzetatik  
Irtetzen diran lantuak.

¡Bai! Euskaldunak gera, bai, denok  
Den-denok gera anaiyak;  
Or Euskaldunen kantuak ditu  
Aditzen Larrun aundiak;  
Kant' oyek berak esnaturikan  
Emen oyarzun guztiyak,  
Euskal-mintzatzen, or eta emen,  
Asitzen dira mendiak.

Itsaso baten orroak dira  
Or nola emen entzuten,  
Esan nai balu bezela, nola  
Sustrai batetik gatozen;  
Den-denok zuaitz bat bera degu  
Biyotz-biyotzez maitatzen,  
Agertutzeko Aitor zarrari  
Nola diogun jarraitzen.

---

(1) Moldaera au Askain-go Euskal-festetara biraldua izan da.

Aritza—esan zuen Aitorrek—  
 Zazute beti maitatu,  
 Nai badezute nik erakutsi  
 Dedan bezela bizitu:  
 Eta Uztaritzen orko Euskaldunak  
 Aritza zuen goratu,  
 Eta emengoa Gernikan aritz  
 Baten aurrean auspeztu.

Chit igeskorrik dira gizonen  
 Uste ta pensamentuak;  
 Laster gelditzen dira lurpean  
 Berakiñ obiratuak:  
 Ala gizonak usteagatik  
 Gaudela bereziak,  
 Zuek eta gu gordeko gaitu  
 Beti Jaunak anaituak.

KARMELO ECHEGARAY-KOAK.

## LA ORACION DE LA TARDE.



Dicen que cuando el sol ha descendido  
 hundiéndose en las cumbres y en los valles;  
 cuando la luna besa desde el cielo  
 los mundos y los mares.

Cuando trémulas brillan las estrellas  
 como los dulces ojos de los ángeles,  
 ojos ¡ay! que se cierran ante el mundo  
 y que ante Dios se abren.

Triste rumor se eleva á las alturas,  
 que brota de cabañas y de altares,  
 lo mismo de la choza del mendigo  
 que de los regios alcázares.

Esa es la voz del alma que suspira;  
 la dulce voz del hijo y de la madre;  
 la oracion del hogar que al cielo vuela;  
 la oracion de la tarde.

X.

